



# Mekolaia etxebizitza

Aldacarak:

Ahozkoa: Mokóla / Mokóla etxésarra



43° 10' 10"

2° 33' 45"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*"... la casería titulada Marien Mecolaya de Urrecha... en la Co-fradía o barriada de Ocango de Berriz, que es de dos viviendas, componiéndose de piso bajo, principal y desban, ocupa una planta solar de doscientos y tres estados con el zaguan, antusano, equivalentes a siete areas y setenta y dos centiareas..."*  
DJE 3/124 or. (1873)

XVIII. mende hasieratik aurkitzen ditugu *Mekolaia* baserriaren aipua, 1704ko Bizkaiko su-erroldetan jada agertzen baita *Mecolaya*. Hortik aurrera, dokumentu guztietan forma bera mantentzen da, batean izan ezik i latinoaz agertzen baitaigu: *Mecolaia* (1828, BAHP, A85/16. or.). 1967ko Udal-errolan, aldiz, ahozko forma jasotzen da, hots, *Mocola*. Berriztarren artean, *Mokóla* eta *Mokóla etxésarra* formak erabiltzen dira baserriari erreferentzia egiteko.

Baserri etxe ederra, handia, bizitza bikoa izandakoa da eta oso bistakoa da hori fatxada nagusian. Izan ere, bi solairu eta ganbaradun eraikinak oso sarrera nabarmenak dauzka ezker eskuman. Bata, arkudun atarte eta bestea, harritzko dinteldun ate zabala. Leihoak ere, saietez gain, hiru motatakoak dira, harlanduz egi-

nak eta beranduago zabaldutakoak, egurrezko dinteldunak eta luzituak. Eta ganbaran, alderik alde, zurezko balkoia. Hauek guztiak, eta fatxadetan antzematen diren materialak, etxea egin zeneko aldi desberdinen erakusle dira. Esaten denez, parrokia eraiki zutenean erabili gabeko harriak usatu zituzten eta horiek dira etxearen alboko hormari eta arkuaren ondokoari kategoria ematen diotenak, XVI. mendeko tailaren adierazgarri izanik. XVIII. mende akaberan edo XIX. mende hasieran, oster, gaur egun ikusten duguna burutuko zuten, kontuan izanik bao apalagoak beranduagokoak direla. Oro har, eta batasuna ematen dion goiko balkoia salbu, elkarren ondoko etxe bi dira, eskema antzekoak gidatuta. Atea edo atarte, erdian; gainean, leihoa eta alboetan, leiho bana. Geroago, beste guztiak. Teilatua bi isurkitakoa du.

## toponimia

Mekolaia edo gaur egun ahoz esaten den bezala Mokola etxearen esangura erabat ezezaguna da guretzat. Agian izena loturik dago Zornotzan, Bernagoitia auzoan, eta Lizartzan ageri diren Mekola etxe izenekin. Hori horrela balitz amaieran "aldapa" adiera omen zuen aia hitza dagoela pentsa genezake.